

# ZEBERIOKO KANTAK AUSPOA BILDUMAREN NONDIK NORAKOA

Juan Manuel ETXEBARRIA AYESTA

## SARRERA

Edonoizkoak badirudi ere, bitargitu egin gura nuke arean nire Gorbeialdeko herri-euskeraren etnotesto bila daragoiodan nondik norakoa.

Hasierara joanez gero, 1975eko udagoienera jo behar dut. Han, Derioko Seminarioan irakasle lez beharren hasiz batera Ander Manterolak Bizkaiko Etniker taldean sartu ninduen. Derioko biblioteca sortuberrian izan nituen lehenengo harremanak On Jose Miguel Barandiaran maixu on eta jakintsuarekin.

Euskal Herriko Etniker taldeen batzarretariko bat Urkiolan egin genuen eta hantxe izan genituen sotana eta guzti On Manuel Lekuona eta On Jose Miguel Barandiaran. Bazkaitorduan maixu biei adi-adi nengoen eta hartara badiost Ander Manterolak: “*Aikomenzan gure herriaren jakintzaren aurridi eta bide zabaltzaileak zuontzat gazteontzat eredugarriak*”.

Eta izan ere halan izan zen. Gerora, On Jose Miguel Barandiaranekin baztartzan ginen Derioko Bibliotekan eta bere “*Guía para una encuesta etnográfica*” egiten hasi, nire kasuan Zeberioko herrian.

Inkesta egin ahala, bidebatez jasoketa interdisziplinarra egiten hasi nintzen eta euren artean beren beregi mito eta esaunden mundua arakatzen.

Inkesta Zeberiora mugatu nuen baina mito eta esaundena Gorbeialdeara zabaldu nuen On Jose Miguel Barandiaranen beraren aholkua jarraituz.

Etniker bilera baten geundela, mito bat kontatu nion On Jose Migueli eta badiost:

– *Non entzun dezu mito hori?*

– *Ba, aiko, nire auzoko Simon Goyoagak kontatu deust eta holango asko dakiz.*

– *Ba, mitook bildu egin behar dira zinta batean, transkribatu eta argitaratu Etniker aldizkarian interesgarriak direlako.*

Halaxe egin nuen. Hasieran Ander Manterolak lagundu zidan transkripzioak egiten eta gerora ni neu baliatu izan naiz.

Simon Goyoaga berriemailea, Zeberioko auzokidea nuen baina bere fitxa zehatza egiterakoan aiko zer aurkitu nuen: Jaio Zesanuriko Ipiñaburun, nagusiagotan Orozkoko Olarten morroi, gero Arteako Seminarioan irakaskuntzaz kanpoko langile eta azkenik Zeberioko Undurragara ezkondu.

Jakina, fitxa honek, Zeberiora ezeze, Gorbeialdeara eraman ninduen eta harrezkero lurralde zabal horretan daragoiot beharleku honetan eta iturri hori oraindik ez da agortu.

Daragoiodan alor honek balio bikoitza du. Alde batetik Etnografikoa eta bestetik Linguistikoa.

Alor biak dira garrantzi handikoak Gorbeialdean. Etnografia aldetik, beste askoren lanak ahaztu barik, ni neu izan naiz lekuko eta hori baieztatze-ko aikor nire *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak* liburuko ekarria (Bilbo 1995). Linguistika alorra loturik doa eta beste hainbeste esan dezakegu, beraz biak aberatsak.

Jasoketa interdisziplinarra aipatu dut lehentxoago eta nire ibilbide honetan, besteak beste, kantuak batzeari ere gogatsu ekin diot On Manuel Lekuonak bere *Literatura oral vasca* liburu ederrean eginiko bidea kontuan harturik.

Gotzon Garatek Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologia sortuz batera, karrera hori egin nuen eta jarraian doktoratu K.Mitxelena zuzendari nuela.

Handik gerora, 1991ean Euskaltzaindiako urgazle izendatu ninduten eta A.Irigoienek Literatura Batzordeko Herri Literatura taldean sartu ninduen Juan Mari Lekuona buru genuela. Ordurako oso ezagun eta lagun nuen A. Zavala baina batzordekide ginenetik harreman handiagoa izan dut eta badut bararekin<sup>1</sup>.

Auspoa liburu bilduma paregaberako ere biderdiko egin izan diot Antoniori, Bizkai aldeko herri bertsolari batzuk aurkeztean bereziki.

---

<sup>1</sup> Oharra: artikulua hau idatzi nuenean, Antonio Zavala bizi zen.

Horra hor “Antonio Zavala Doctor honoris causa” izenburupean argitaratutako Bertsolari 34.zenbakian idatzi nuena: “Gure Antonioren bilketa lan zabala eta mamitsua aipatu dut hasieran eta lan horren hedapen hori Bizkairaino iritsi da. Lehenengo lana aspalditxokoa da, Muxikako Balendin Enbeitari eginko zenbaki biak, 117 eta 118 hain zuzen, *Neure apurra* titulupean.

Geroago, Zeanurira etorriko da, Basilio Pujanari beste hiru liburu egiteko, Abel Muniategiren laguntzaz. Liburuok hauexek: 191 *Egi batzuek aixetaraten*; 211 *Deabruak ostutako urteak*; eta 251 *Oiauak*.

Handik gerora, nik neuk aurkitu dizkiot beste berriemaile bi eta haiei ere beste liburu bina aterako die, lehenengo bertsoz eta bigarrena prosaz. Bata, Dimako Faustino Etxebarria, herri bertsolaria da. Honi egindako liburu biak hauexek: 208 *Nor garan azaldu*; eta 237 *Nire gazte denpora*. Bestea, nire osaba Lino Ayesta dugu, Manu Ayesta herri-bertsolariaren anaje gazteena. Honi egindako liburu biak, hauexek: 217 *Gure bizkuntzaren mugatik*; eta 245 *Ikusiak eta entzunak*.

Aipatu berri dudan Bertsolari 34. Zenbakia 1999. Antonio Zavala Doctor Honoris Causa. Juan Manuel Etxebarria Ayesta: “Antonio Zavala Bizkaian zehar. ( 90-93 orrialdeak) irakurriz, *Zeberioko Kanta zaharrak* 261 zenbaki-duna argitatze bidean zela esaten da baina azkenean titulua laburtu egin zen, hots, *Zeberioko Kantak* eta zenbakia aurreratu egin zuen A. Zavalak nireari lehenetsuna eman ziolako eta azkenean 259a izan zen.

Behin honaz gero, goazen *Zeberioko Kantak* nire liburuaren nondik norakoa azaltzen.

## ZEBERIOKO KANTAK

Liburu hau 1999an argitaratu zen eta legezkoa denez sarreraren ondoan berriemaileak agertzen dira, eurak izan ditudalako iturri emankor. Aikomenzan guztiak: Leonor Ayesta Goikoetxea (neure ama); Patxi Etxebarria Arroita. (neure aita ); Paula Arroita Usategi(pandero-jolea; neure amama); Maurizia Aldaiturriaga (pandero-jolea; neure auzokoa); Manu Ayesta Goikoetxea (herri-bertsolaria; neure osaba); Lino Ayesta Goikoetxea (neure osaba); Leon Bilbao (albokaria; neure osaba); Joakintxu Goti (trikitolaria; neure auzokoa); Dolores Artiñano Iriondo (neure amaxea); Lino Ayesta Amondarain (neure lengusua); Jose Abrisketa Ayesta (neure lehengusua); Karmelo Ayesta Aranguren (neure lehengusua); Damiana Etxebarria (Zeberioko elbarrenen Bertzutengoa).

## KANTUEN SAILKAPENA

Aikomen Antonio Zavala eta bion arte egin genuen sailkapena kasuan kasuko argitasunak bitarteko.

Hasteko **Koplak** datoz, bai jotak eta bai porruak. Jarraian **Ume-Kantak**. Geroago **Bestelako Kantak**. Ondoren **Santa Ageda Abestiak**. Hurrengo **Kopla Soltuak**. Eta azkenik, **Bertsoak** ( bertso-paperak).

Sail ezberdin bakoitzean era bateko edo besteko pentagramak agertzen dira. Nik neuk grabatu nizkion zinta batean eta A.Zavalak pentagramaratu egin zituen eta hortxe daude letrok irakurri ezeze kantatu ere ahal izateko.

Honelako edo eta antzerako bildumak eta bilduma horretako kantu batek bere historia dauka eta bide horretatik jo nahi nuke Etnografia ikutu bat emateko ahorik hara jasotako guzti honi.

### I. Koplak: jotak eta porruak

Beharbada, ezagun egiten zaizkigu han hor hemengo koplak baina beti egoten da berezitasunen bat edo beste.

Jotetara joanik har dezagun Maurizia Aldaiturriaga panderojolearen kopla hau:

*Begira nago begira  
kamiño-zubi barrira,  
noz etorriko ete dan  
alkatea gure errira.*

Kopla honetan, “kamiño-zubi” hitz konposatua agertzen da. Horren orde, gehienetan “goiko kamiño” entzuten da baina Mauriziarenak badauka bere zera. Ondo pentsatuz gero, gure herrietan normalean, kamiñoak ez daude goietan. “Kamiño-zubia” oster, herriaren sarreran, erreka gainean egiten den harrizkoari berari baino ere gehiago, zementozko edo asfaltozkoari deitzen zaio, lehenagoko egurrezkoagandik bereizteko. Kopla honetan “alkatea” dator herrira, beste batzuetan “ nire maitea”, etab.

Porruetara bagoaz, kantuen gaietan egingo nuke parada. Esate baterako kopla honetan:

*Oraingo neskatillak  
zer daude merezi  
errekan beratuta  
galdaran egosi.*

Kopla hau entzunda argi dago gizonezkoa ez dagoela bat ere pozik neska-riaren tratuaz, seguruenez kalabazak eman dizkiolako edo beste mantzinke-riaren bategatik. Dena dela, kantua- ren barruan eta doinuaren arintasunean burlazar ekite hau ez da hain txartzat hartzekoa, jakina, erromeriak beti erro-meria.

## II. Ume kantak

Asko daude eta oso politak. Batzuk melodikoak dira eta beste batzuk oster- a bariazio musikal txikikoak, doinu erraz batez entonatuak. Besteak beste, aipatu- tako bakoitzetik bat hartuko dugu:

BATEN JOAN NINTZAN...

*Baten joan nintzan merkatura ni  
ta an erosi neuan txakurkumatu bat  
txakurkumatuak, txau-txau-txau  
nik pasau neuan gaua!*

*Baten joan nintzan merkatura ni  
ta an erosi neuan katakumatu bat  
katakumatuak miau-miau-miau,  
txakurkumatuak txau-txau-txau  
nik pasau neuan gaua!*

*Baten joan nintzan merkatura ni  
ta an erosi neuan txarrikumatu bat  
txarrikumatuak krum-krum-krum,  
katakumatuak miau-miau-miau,  
txakurkumatuak txau-txau-txau,  
nik pasau neuan gaua!*

Abesti honek ez dauka amaierarik. Umea lotara doanean kantetan hasten da eta loak hartu ahala abestu.

Estrofa bakoitzean animalia bat ugaritzen da, hobeto esanda animalia horren “ hizkuntza ” onomatopeya bidez erabiliaz. (Behiak muuu...; astoak jarr...; txakurrak txau...ardiak beee...; txerriak krum...etab.):

ATXEA MOTXEA

*Atxea motxea konili pan  
zeure semea errotan  
errota txikerra klin klan  
Katalina bentan korrentan*

*tipirripiton Martin zapaton  
kañabera tronpeta lau kirikon;  
txirripi txarrapa, txirripi txarrapa...  
txaust!  
Pispit ala koskot?*

*Atxea motxea konili pan  
zeure semea errotan  
joan nintzan basora  
topau neuan erbi bat  
jaurtin neutsan arri bat  
ta atera neutsan ezkerreko  
begi gorri andi bat;  
zelemiña kanpa, zelemiña kanpa...  
txaust!  
Pispit ala koskot?*

Abesti hau jolas bat da eta bertsio asko ditu Euskal Herrian zehar. Nik hemen ama eta aitagandikoak jaso ditut, Uriondokoa bata eta Undurragakoa bestea. Ume bakoitzak atzamar bat ipinten du, besterik ez bada, aitita edo amamaren belaunburuan eta kantalaria atzamarrak banan-banan ikutuz doa eta abestiaren azken parteko “*txirripi-txarrapa* edo *zelemiña kanpa*”-ra hel-tzen denean, umeetarikoen atzamar bat harrapatu behar du “*Txaust*” esanaz eta jarraian harrapatutakoari galdetu zein zigor nahi duen: Pispit ( pitxitxeka egin ) ala “koskot” ( buruan kaskatekotxu bat eman ). Umeak ere zuhur egoten dira eta kantalaria huts eginez gero, kantalaria berari egiteko zigor-itau-na jarraian zigortzeko.

### III. Bestelako kantak

Sail honetan era askotako kantak sartu dira Frantziako Korteko erro-mantze luzetik hasi eta koplak txikiatarartekoak.

Abestion artean, mitologiako bat ere jaso da eta aipatu egingo dugu Euskal Herrian zehar hainbat bertsio dituelako.

### SAN MARTINEN HAMABI EGIAK

Abesti hau, mitologiako ipuin batekoa da. Zeberion batutako ipuin batzuetan, deabrua agertzen da. Baserritarrek, maldizio bidez, laguntza eskatzen zio-

ten deabruari euren arimaren truke. Deabruak baietza eman orduan, eskatutako lanak egiten omen zituen. Baina, baserritarrek, euren arima galduta ikusi orduan, abadeagana jotzen zuten edo eurek egin beste tratu bat deabruagaz.

Abesti hau, horretariko tratu bat da. Deabruak esan omen zion baserritar horri San Martinen hamabi egiak esaten bazizkion, barrien barriz lortuko zuela bere arima. Eta halaxe gertatu omen zen azkenean.

*San Martin:*

*esaik bat: Gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.*

*esaik bi: Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.*

*esaik iru: Iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.*

*esaik lau: lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.*

*esaik bost: Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.*

*esaik sei: sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.*

*esaik zazpi: zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.*

*esaik zortzi: zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.*

*esaik bedratzi: bedratzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.*

*esaik amar: amar mandamentuak, bedratzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.*

*esaik amaka: amaka milla angeruak, amar mandamentuak, bedratzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.*

*esaik amabi: amabi apostoluak, amaka milla angeruak, amar mandamentuak, bedratzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.*

*esaik amairu: ez dok amairu! oilarrak joten jok munduan, angerutxuak zeruan.*

Hemendixek hartu zuen J.Oteizak “**Ez dok Amairu**” harako J. A. Artze; J. Artze; J. A. Irigarai; L. Iriondo; M. Laboa; J. Lekuona; B. Lertxundi eta X. Letek osaturiko abeslari talde ospetsuaren izena, hamairu zenbakiaren malefizioa apurtzeko.

#### IV. Santa Ageda abestiak

Abesti honen hainbat bertasio jaso dira. Zeberion tradizio handia izan da eta gaur egun ere badago Santa Ageda kantetako. Letrari dagokionez, nire osaba Manu Ayesta herri-bertsolaria zen letraginen ospetsua eta hemengo bertso asko bereak dira, berak eginak edo haragoan entzun eta gero eratuak. Kantaria ere aparta zen eta koruan aurrelari beharra egiten zuen.

Bilduma honetan, aldea batera datoz Santa Agedaren bizitzari buruzko koplak eta gero agur, eskari, esker on eta abarretarako bertsoak.

Santa Agedaren bizitzakoetarik bertasio bat hartuko dugu eta Zeberioko euskera nagusitu arren haragoko eraginak ere ikus daitezke:

##### SANTA AGEDA III

1)

Bedeinkatua izan dedilla  
etxe onetako gentea  
pobre ta umilde dabizantzat  
badute borondatea  
Santa martirik maitea  
dago errukiz betea  
berak alkantzau ta emon daizkula  
osasuna eta bakea.

2)

Libertadea eskatzen deusat  
etxeko printzipalari  
S. Agedaren alabantzarik  
kantatutzera nator ni.



Graziak ipini deusaguz  
santa bedeinkate oni  
onen fedean bizi gaitezan  
osasunez eta ongi.

3)

Nok esango dau zer pasau zuan  
munduan S. Agedak  
lenda biziko azotaduta  
kendu eutsezan bularrak  
Gorrotoaren indarrarekin  
gentilen biotz gogorra  
instante baten zabaldu jakon  
gorputz guztian odola.

4)

Santa au preso sartu zanean  
zan milagro bat andia  
zeruetatik bajatu jakon  
Jaungoikoaren argia.  
Milagro ikaragarria zan  
santa onen alegria  
S. Pedrok berak kuratu eutson  
santa oni gorputz guztia.

5)

Borroka gogor oiek diñau  
ilgo da gaurko gaubean  
len beizan firme billatu euden  
santa au biramonean  
esan eutsoen euren onean  
nai bozu(badozu) gure legean  
bestelan presentatuko zara  
Quinsianoren aurrean.

6)

Berriz enperadore onek dino  
eroateko argana  
dontzella gazte orren biotza  
len bezain firme darama.  
Jaun zerukoak emana dauka  
orain berak ein dauana  
zer amodio andia eukan  
gure Jaungoikoagana.

7)

Soldadu batek galdetzen deutso  
zergaitik dagon ixilik  
adoraikezu eure jaungoikoa  
egon nai bozu (badozu)bizirik  
itzori ondo aditu eta  
Santak diñotse bakarrik  
nik adoratzten dodana baño  
ez dago gizon besterik.

8)

Zer balorea eraman euden  
etsai gaiztoan aurrera  
umildadezko bere begiak  
itzuli ziran lurrera  
Emperadore kruel-kruela  
an beti beren legera  
arraztaka ta desonraturik  
atera bedi kalera.

9)

Orduan erantzun eutson berak  
Jaungoikuari graziak  
baña borrego gentil gaiztoak  
zauden gorrotoz josiak  
Santaren fede bizi-bizia  
Jaunaren probidentzia  
lurrak ikara egin euan ta  
arritu ziran guztiak.

10)

Jaun aundi bat etorri zan ara  
ikara aren puntuan  
emperadore aren lagun bi  
azpian artu zituan  
ikusirik an orduan antxe  
aiek alako moduan  
ze milagroak gertatu ziran  
santa onekin munduan.

11)

Iltzen egoan orduan bera  
Jesusi deiez eguan  
orain gloriak gosatzen dago  
angeruekin zeruan.

Zeruan dala eukiko dogu  
Santa Ageda goguan  
bere bizitza kontatutzeko  
kanta-kantari moduan

12)

Kristau deboto batzuek bertan  
euden bere gorpua artu  
Kataniako ziudadian  
baita bere enterratu  
kristaua, konsideratu  
au onela zan gertatu  
karidadea ematen dunai  
berak eingotso(egingo deutso) pagatu.

13)

Adios orain esaten dogu  
santa onekin batean  
urte ontxu bat pasau dagigun  
osasunagaz bakean  
pobre umildiaren artean  
beti erruki gaitean  
karidadeak lagunduko dau  
zeruetako atean.

Agilandoa lortzeko eskari-kopletan, era guztietakoak agertzen ziren, zelango pertsona halako bertsoa eginik, baina beti saria lortzeko bidean. Hori bai, kantatu baino lehen hauxe galdera hau egiten zen: “Kantatu ala errezatu?” Jakina, batzuetan, zergatik hargatik, ez zen egoten kanturako gogorik. Gaur egun aldatu egin da ohitura hau, alde batetik ez delako kantatzen baserririk baserri lehen bezala eta bestetik eleizaren eragin gutxiago dagoelako.

Saria lortzeko koplak jasoketa egin ondoren, “etxeke andreari” eginikoak izan dira ugarietak. Zeozergatik izango da ezta? Ba har ditzagun batzuk:

#### ETXEKO ANDREARI

1)

Etxe onetako andrea  
leku oneko alabea  
ortxe bidean konsultau gara  
zelan dan limosnerea.

Esku batean dirua dakar  
bestean lukainka pareta  
altzoa bere gora dakar da  
an be dozena arrautzea

2)

Ortxe soloan madari  
erramak ditu gora adi  
etxe onetako etxeko andreak  
Ama Brijina dirudi.

Bere arpegiak egin eiten dau  
espillu bat legez argi  
enbra eder ta galantagorik  
ez da mundura etorri.

3)

Eleiza onduan kaltzadea  
andi jentea pasa da  
etxe ontako etxeko andrea  
ondo andre galanta da

Etxeko androri joaten danean  
jai egunean mezara  
gente guztia berari adi  
oten (egoten) da bere trazara.

4)

S. Ageda Santa aundia  
zeruetako tronuan  
etxe onetako etxeko andrea  
axelangua munduan.

karidadezko begiak ditu  
S. Agedaren moduan  
biotz obeko andrarik ez da  
bat bere emeko munduan.

5)

Etxeko andria on ona  
zeure gauzaren doi ona  
paskoa goixean jantziko dozuz  
zeure soñean bost gona.

Zuri ta nabar azpikogona  
azul ederra ganeko  
andrea zure parerik ez da  
plaza bat ondradutzeko.

6)

Ortxe betxuan errota  
uruna ondo eota  
etxe onetako etxeko andrea  
ondo da andra galanta.

Egitadeak formalak eta  
gorputza ondo pertxeta  
beren soñean jantzi ederrak  
erregiña lez jantzita.

7)

Etxe onetako etxeko andrea  
txikitxu konponidea  
biribil eta kuriosea  
gorputzez prepradea  
eta ganera beterik dauka  
generoz beren etxea  
gaur guretzako zabaldukoitu  
kartera eta kaxea.

8)

Ortxe soloan azia  
susterra dauka luzia  
etxe onetako etxeko andrea  
ona ta kuriosia.

Orrez gainera esan deuskue  
zelan dan limosnerea  
etxeko andra onek emongo deusku  
dirua ta gauzea.

9)

Ondo andratxu prepradea  
etxe onetako andria  
erri onetan onena dauka  
baita berorrek ondria  
ondo andratxu kariñosea  
biotza limosneria  
gaur guretzako emongo deusku  
limosna guztiz andia.

10)  
Ortxe goitxuan bidia  
aren onduan idia  
etxe onetako etxeko andrea  
andratxu konponidia  
  
orrez gainera ondo dakigu  
zelan dan limosneria  
andratxu onek emongo deusku  
dirua eta gauzia.

Munduan denetarik zegoela eta dagoela esaten da eta hemen ere beti suertatzen da Santa Ageda kantatu eta gero agilandorik eman ez egitea. Holako kasuetarako kopla bereziak egiten ziren. Aikomenzan baten faltan bi:

#### LIMOSNARIK EMOTEN EZ DAUANARI

1  
Erbia dago azatzen  
erbikumea babatzen  
etxe onetako u(ga)zaba jauna  
samarañoko kakatzen.

2  
Belea dabil atxean  
beretzat zori gatxean,  
arantza baltza sartuko al jako  
atzeko zulo baltzean.

#### V. Kopla soltuak

Sail honetako kantu batzuk besteetan ere sar zitezkeen baina izenburuari eutsiz badaukate tokia eta euretarik bat hartuko dugu abesti edo eta esaunda bezala har daitekeelako.

#### IRU ALABA BERBALTUDUN EDO TARTAMUTUAK

“Kantatxo honen historia hauxe da: Ama batek hiru alaba eukazan. Hirurak berbaltudunak edo tartamutuak. Egun baten mutil gazte bat zan joateko euren etxera errekadu egiten ezkontzeko asmoz. Amak, jakinik alaben arazoa, ixilik egoteko egindu eutsen, berak berba egingo ebala eta. Baina,

josten ebilzala, joskilak ziran eta, alabatariko bati firua apurtu jakon eta akordatzakoan edo ustekabean, amaren esanari kasu egiteko asti barik badiño:

- Talan, apurtu on(a) (batak)
- Torontile emoion(a) (besteak)
- Amak esan ixilik oteko ta gu ez isilik on.(hirugarrenak)

## VI. Bertso-papelak

Alor honetako bertsoetarik batzuk originalak dira, beste batzuk han hor hemendik buruz ikasi eta Zeberion kantatuak eta azkenik Zeberion bertan aurkitutako bertso-paperetatik jasoak.

Originalen artean interesgarriak dira Manu Ayestagandik lortutako Lukas de Añibarroren bertsoak, gerora, oinarri honekin lan luze eta zehatza-goia egiteko balio izan dutelako M.C.Mendigurenen eskutik:

### BERTSO BARRIAK, LUKAS DE AÑIBARROK JARRIAK

- 1)  
Bertso barriak kantau bear duz  
motibo ziran boto bi  
Zeberioko kaballeroak  
derrotau bear naude ni
- 2)  
Mundu guztiak galdu bear gaitu  
zori tristeko diruek  
deskuidu ori egin bazan ze  
ondo bengantzan naiuek
- 3)  
Ainbeste gizon prudentziako  
ibili dira gugana  
ugazabaren aginduagaz  
badoiaz Tantanegana
- 4)  
Tantanegana joateko eta  
guztiak joan ez dira  
atxurrik asko konpontzen deusku  
ogeiko zarrak balira.
- 5)  
Gure Jainkoan zelan emon lei  
mantzinerako gauza ona

diruarekin menpe izanekaz  
amenazuak auzora.

6)  
Dibujante bat endredau daude  
ondo dagoan lekutik  
kalte andiak guri eginda  
joango dira mundutik.

7)  
Dibujante ori koloka daude  
beste ofizina batera  
adiskideak ez dira falta  
orain bertsoak atera.

8)  
Kostunbrerikan ez dogu euki  
zoia bezala egoten  
obrea artu ta joaten gara  
lauko freskoak ekarten.

9)  
Berrerrako libre daukaguz  
lau probintzia osoak  
bear ein barik etxok (ez jok) emoten  
pezetarikan auzoak.

Beste batzuen bertsoak buruz ikasi eta kantatzeko ohitura handia izan da gure herrietan. Nire amak, esaterako, gaur ere 88 urterekin buruz dakizki *Markesaren alaba* erromantzearen koplak guztiak<sup>2</sup>.

Liburu honetatik beste bat hartuko dut azkeneko A. Zavalaren argitze-ohar eta guzti. M.Ayestaren bertsoan bizkaieraren eragina nabarmena da:

#### MUTILZARRAREN BERTSOAK:

1)  
Dozena bat bertso barri  
gaztean konsolagarri  
neure mingaña sano dan arte  
nai nitukez jarri.

---

<sup>2</sup> Oharra: gaur 90 urte ditu.



2)

Bagiratuaz alkarri  
andrarik ezin ekarri  
mutil zarraren despedidea  
ezingo dot jarri.

3)

Egon zaiteze aditzen  
sartu ta nola gabiltzen  
gazte denporan ezkondu barik  
fazil da gelditzen.

4)

Orain anginak barritzen  
indarrak bere urritzen  
soldata gabe orain jarri naz  
anaia serbitzen.

5)

Anaiak nauko mendian  
koineta aldamenean  
gazte denporaz akordatzen naz  
sasoa joanean.

6)

Orain tristura begian  
nago ez nago txarrian  
artu pipa bat ortzean eta  
suaren guardian.

7)

Leenago erromerian  
dama gazteen erdian  
gira ta bira ibiltzen nintzan  
panparroikerian.

8)

Gero ilunabarrean  
estimazio txarrean  
egun guztian oien pardelak  
neure bizkarrean.

9)

Iloba daukat arotza  
oa emendik arantza  
animosoa ez da gelditzen  
zarraren biotza.

10)  
Begiratua zorrotza  
soldata barik morrontza  
animosoa ez da gelditzen  
zarraren biotza.

11)  
Ni neuk daukadan jantzia  
badaukat nori utzia  
bi arkondara, praka pare bat,  
anaiak utzia.

(OHARRA: Bertso hauek Xenpelarrek dira. Ikus: Auspoa 88-89-90, 241 orrialdean eta *Auspoaren sail nagusia*, 175. orrialdean.)

Zeberion aurkitutako bertso-paperen berri emateko interesgarria da nire eskuetara nola heldu ziren jakitea.

Ni ez nintzen joan bertso-paper bila, On Jose Miguel Barandiaranen Etniker taldeko behar bat egitera baino. Alde batetik, J.M.Barandiarenen *Guía para una encuesta etnográfica* egiten nembilen eta bide batez mito, esaundetarik hasi eta batuketa interdisziplinarra egiten.

Egon ere jakitun nengoen Zeberioiko Bertzuten auzunan Zipriano Etxebarria izeneko baserritarra ipuin kontalaria zena. Orduan, Txomin Aretxaga haren senide eta nire adiskidea lagun hartuta joan egin nintzen Bertzutenera eta emaitza ona lortu ere bai. Grabazioak bukatu genituenean hauxe esan zidan Ziprianok:

– *Oño! onango kontuetan nipaño( nik baino) geao yakik nire arreba Damianak. Yoai ( joan hadi) beragana ortxe ondoan bixiok (bizi dok) eta.*

Eta ba joan ginen Txomin eta biok. Sartu ginen etxean, jarri sutondoan eta beste hainbeste mito eta esaunda grabatu nizkion.

Azkenean, eza eskuan dagoela jakinik, badaezpada, berriemaile guztiei bezala, galdera hauxe egin nion Damiana Etxebarriari:

– *Kantuen artean bertso-papalik edo erabili dozue noiz edo noiz?*  
– *Etxoisu piti beten, ointxe esanes ganera, nire aista defunteak kajatxu beten gordetan situsen, intera baten, kurioso-kurioso papel batzuk eta ekarri ingotzudes sauk ukusteko.*

Ekarri zidan kajatxo hori eta dena zegoen bertso-paperez beterik. Batzuk euskera hutsean, beste batzuk euskera eta erderaz eta hirugarren batzuk gaztelania hutsean. Bakoitzeko bana hartuko dugu adibide gisa:

LUMOKO NESKATILLARI BERTSO BARRIAK:

1)  
Errian zertan zabilz  
iñor engañetan  
ez diranak kontatzen  
bazter guztietan  
zeuk errua eukita  
zeu zabilz berbetan  
zer dan neuk esango dot  
bertso barrietan.

2)  
Zeuk bialdu zenduan  
errekaduakin  
esaten nai zendula  
ezkondu nirekin,  
baietz erazo arte  
ekin eta ekin  
ai nik baneu orduan  
zu nor zaran jakin.

3)  
Zeuk errekadu ein da  
ni zugaz batzeko  
biok bizimoduan  
alkarrez jartzeko,  
Ta oin modu onetan  
atzeratutzeko  
zer motivo izan da  
ezkontza galtzeko?

4)  
Norbera ibili barik  
burua jasoten  
auzunetan dakie  
polito esaten,  
Ondo dakigu zuri  
zer jatzun gustatzen  
iñori lan eragin  
ta zeu deskantsatzen.

5)  
Bilbon kriada eon da  
etorri Lumora  
apur bat deskantzetan  
osaban ondora,  
or zabiz erregiña  
baziñan modura  
zu besteko bat barriz  
topau lei non gura.

6)  
Lumoko errian dauzan  
mutil aberatsak  
nai bazendu lograuko  
zendukez zeuretzat,  
alan kontatzen dozu  
egaletan beintzat  
kontuz artu etzaizan  
norbaitek zorotzat.

7)  
Pañelo gorria ta  
erropia beltza  
moda ekarri dozu  
Bilbotik onantza.  
arro pasatzen dozu  
Lumoko aldatza  
baia beste batentzat  
mutil aberatsa.

8)  
Ez dago zulangorik  
Lumoko partean  
zeu zara ederrena  
guztien artean,  
zuretzat senargairik  
emen parajeen  
ez dago Madrilera  
mobidu ezean.

9)  
Uste dozu zarala  
ia erregiña  
ta bai zarala markes  
gazte baten duña,

gorputzez ain ederra  
azalez urdiña  
udabarriko lora  
edo klabeliña.

10)  
Diputadu gazte bat  
logratu artean  
zugaz ez dao gauza onik  
bien bitartean,  
senarra dozunean  
Madrilgo kortean  
zeu ara urtetako  
automobilean.

11)  
Markes bategaz laster  
ezkontzen bazera  
ta paseatzen joan  
beraz Parisera,  
Geu be despeditzeko  
prest egongo gera  
emonik biderako  
eunbat bolandera.

12)  
Amabi bertsorekin  
orra despedida  
Eulalitxo zurekin  
komeriak dira,  
joaten zaranean  
Lumotik Madrilera  
enamorauko jatzuz  
pañelo gorrira.

BERTSO BARRIAK (ERDERA-EUSKERA):

1)  
Unas canciones nuevas  
nai nukez kantatu  
con la esposa mía  
zer zaidan pasatu,  
con un cortejo nuevo  
niri eskapatu

aquella habrá creído  
ez dala pakatu.

2)  
Que yo dije por ella  
ospital batean  
que no me visitaras  
osatu artean,  
que ya tenía otro  
bien bitartean  
me dicen que anda ella  
montaña partean.

3)  
Ama Elgoibartarra  
ella de Orozko  
niri eskapatu deust  
con otro morrosko,  
zazpi urte pasau da  
que yo la conozko  
por donde anda ella  
nik ez dakit asko.

4)  
Dejando a su hija  
desanparaturik  
con un pasiego ha ido  
plageak arturik,  
ai qué mula tan falsa  
eduki nuan nik  
en las tres provincias  
etxaok(ez jagok) alangorik.

5)  
Teníamos una hija  
nor ete du aita?  
como si fuera mía  
nik izan dot maita,  
en Muniketa, señores,  
lenbiziko bentan  
como marido y mujer  
egon ziran bertan.

6)  
Bonigazio de Gomez  
jan ta edanetan  
le vino su esposa  
denpora onetan,  
como era muy anciana  
nobia gaztea  
le calentó su mujer  
lepoko partea.

7)  
Los dos dicen que beben  
goizetik gaubera  
tres azumbres de vino  
edanda oera,  
sin dormir en ayunas  
askozaz obe da  
la mujer que yo tenía  
onetan bizi da.

8)  
La mujer vendería  
gizonaren prakak  
sin que el marido sepa  
andreaman tranpak,  
la mujer bebedora  
ez dok emendatzen  
tiene todos los vicios  
daukazanak saltzen.

9)  
Con una cestilla  
besoan arturik  
para imitar en casa  
erdi zoraturik,  
que solo andaba fuera  
burutik faltaurik  
pero aquella no tiene  
buruko faltarik.

10)  
Y los mozos de Bizkaia  
eta probintzia  
antes de casar pensar  
zer dan buztarria,

si buskais como ella  
zeuron ezkongiaia  
para vosotros será  
despatxugarria.

11)  
Yo como era culpante  
beste asko ibilita  
tu infeliz marido  
aforratu zaita,  
vive Jesus andrea  
Juana eta Juakin  
naikoa esan deutsuet  
nai badozue jakin.

12)  
Por andar en la plaza  
eder ta galanta  
muchas tienen, señores,  
onetako falta,  
una jarra bonita  
musturra ausita  
con casi media chispa  
albora jausita.

## ROMANCE- CATASTROFE EN EL PUENTE ZUBIETA. LEMONA (BIZKAIA)

### 1. Primera Parte

Con lágrimas en los ojos  
y el llanto en el corazón  
voy a comenzar si puedo  
esta triste relación.

El día 13 de junio  
de mil novecientos veinte  
hubo una fiesta en Urkiola  
a la cual fue mucha gente.



Fue el día San Antonio  
día de gran romería  
donde van mozos y mozas  
rebosantes de alegría.

También mujeres y ancianos  
van allí a hacer sus ofertas  
y después de haberlas hecho  
se dirigen a la fiesta.

Bailan y ríen y cantan  
rezan e ingieren meriendas  
y acabado el festival  
se vuelven a sus aldeas.

Así termina la fiesta  
tan popular en Vizcaya  
y también yo termino aquí  
para empezar la parte segunda.

## 2. Segunda Parte

Alegres y placenteros  
cantando mozos y mozas  
dirígense los romeros  
a San Antonio de Urquiola.

Salió desde Arrigorriaga  
un autocamión cargado  
con cuarenta pasajeros  
para el sitio mencionado.

Llegaron hasta Lemona  
sin ninguna novedad  
mas al pasar por el puente  
fue la desgracia fatal.

Dicen que por viraje  
hecho sin mala intención  
chocó con la barandilla  
y el automóvil cayó.

El chófer que lo guiaba  
era muy poco capaz  
y en punto tan peligroso  
perdió la serenidad.

Con una rueda trasera  
se partió la barandilla  
y no pudieron salvarse  
tantas inocentes vidas.

Una vez en el vacío  
aquel enorme furgón  
de los angustiados pechos  
salía esta exclamación.

Auxilio, favor, socorro,  
Dios mío, madre querida  
que por ir a divertirnos  
perdemos aquí la vida.

Una gran montaña de agua  
al caer se levantó  
y debajo de camión  
a todos sepultó.

Apenas se dieron cuenta  
de la triste situación  
entablaron una lucha  
para lograr su salvación.

El agua teñida en sangre  
de tantos muertos y heridos  
no parecía sino que  
todo había concluido.

Con una fiereza tal  
que no puede describirse  
se agarran unos a otros  
para del agua evadirse.

Allí había un matrimonio  
que en plena luna de miel  
debajo del fatal río  
vió perecer su doncel.

Entre estos hay otro caso  
que vamos a mencionar  
y eran dos enamorados  
que íbanse pronto a casar.

El se llamaba Mariano  
y la nobia era Francisca  
que proyectaban su enlace  
para dentro de unos días.

Y con amor puro y santo  
su porvenir preparaban  
pero la traidora muerte  
la vida a los dos arranca.

Eran dos trabajadores  
que elaboraban papel  
para mantener sus madres  
que eran ancianas también.

Y para dar una prueba  
más ardiente del querer  
mueren ambos abrazados  
como amantes de Teruel.

En cuanto hubo noticias  
de esta terrible desgracia  
de todos los caseríos  
fueron pronto a remediarla.

Principiaron los auxilios  
con cuerdas, palos y una lancha  
que un señor prestó al instante  
que a las víctimas salvara.

Grandes pruebas de valor  
se dieron en aquel río  
para recoger los muertos  
y atender a los heridos.

Uno con la pierna rota  
que el autocamión partió  
sin cuidarse de sí mismo  
de la muerte a tres libró.

Alcalde y autoridades  
ténganlo todo presente  
y arreglen las carreteras  
para evitar tanta muerte.

Ahora a los supervivientes  
enhorabuena cordial  
y para los otros pobres  
sólo nos resta rezar.

El día de San Antonio  
triste recuerdo dejó  
en el puente de Zubieta  
al río un camión cayó.

Unos cuantos desgraciados  
en el fondo perecieron  
sembrando un día de luto  
a Bilbao y al mundo entero.

Y para el año que viene  
les voy a recomendar  
que a San Antonio de Urquiola  
camión no deben de usar.

Un recuerdo dedicamos  
a esos pobres desgraciados  
que fueron a divertirse  
y murieron aplastados.

Aikomenzan ba Zeberiorik harako pitxilora batzuk gure lagun zintzo eta maixu izan dugun Juan Mari Lekuonaren omenez. Eta kantuz kantu ibili garenez, oraingo koplak hau Lekuonatar Juan Marirentzat.

Gari ogia janari  
iturri ura edari,  
gure gogoan zaitugu beti  
Lekuonatar Juan Mari.

## ONDORIO GISA

Nire Etnografia lanetako atal hau garai bateko emaitza baino ez da. Herri jakintza askoz ere handiagoa da eta hor dabil ahorik aho batean bestean. Aberastasun hori ikusteko, besteak beste, J.Kaltzakortaren *Dantza-kopla zaharrak* liburu ederra ikustea baino ez dago. Nire liburu honek beste asko egiteko abisaria izan nahi luke denon arte bideratzeko etorkizunera gure aurrekoengandik ikasi duguna.

Eta amaitzeko nire Auspoako liburuko kontraportadarik harako azken hitzak erabiliko ditut: “*Min bako arrana ugerra(k)tx(j)an* dio Zeberioko esatera zaharrak, baina liburu honen bidez ez da isilduko gure herri zaharraren arran-hotsa.”

## BIBLIOGRAFIA

BARANDIARAN, J.M. *Guía para una encuesta etnográfica*. Ex. Dip. Foral de Álava. Vitoria, 1976.

— *Obras completas*. B.G.E.V. Bilbao, 1972.

BERTSOLARI, 34 zk. in *Antonio Zavala doctor honoris causa*. Donostia, 1999.

ETXEBARRIA AYESTA, J. M. *Zeberioko Haraneko Euskeraren Azterketa Etno-Linguistikoa*. Doktorego Tesia. Ibaizabal. Zornotza, 1991.

— *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak*. Bilbao. Labayru-Bilbao Bizkaia Kutxa, 1995.

— *Zeberioko Kantak*. AUSPOA Liburutegia. Sendoa. A. Zavala. Auspoa 259. Estella (Navarra). Sendoa. Oiartzun (Gipuzkoa).

— *Euskal Urtea, Obituraz Betea*. Ibaizabal, Amorebieta, 2003.

IRIGOYEN, A. “Formas de nombres de localidades vizcaínas” in *FL.V. 2*, 1972

KALZAKORTA ELORZA, J. *Dantza-kopla zaharrak*. Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa. Bilbo, 2007

LEKUONA, Manuel. *Literatura oral vasca*. Colección Auñamendi. San Sebastián, 1964.

MITXELENA, K. *Fonética Histórica Vasca*. Dip. Guip. San Sebastián, 1961.

ZAVALA, A. *Auspoaren auspoa*.( I-II). Oiartzun. Sendoa, 1996.